

Kultur agenda

Maiatzak 16 ostirala
Maiatzak 25 igandea

Lagunekin Kantari aritzeko beta

Azken txanpan sartu da Lagunekin Kantari. Astelehenean, maiatzak 19, Itziar Zamorak eta Ander Ugaldek, batetik, eta Inasmeteko Koruak, Dani Ugaldereen zuzendaritzapean, bestetik, emanaldiak eskainiko dituzte. Saioa Intxaurrenondoko Larrotxene kultur etxean izango da, 20.00etan. Bestalde, ostiralean, hilak 23, kantu jira egingo da Intxaurrenondoko kaleetan, 20.00etan Larrotxenetik abiatuta. Ondoren, kantu afaria izango da Artzak Ortzeko elkartearen. Afarirako txartelak Larrotxenean bertan eros daitezke.



Dantza ikuskizunak

"Dantzaz" izeneko egitaraua prestatu du maiatzerako Biarritzeko Baletak. Ikuskizunen artean, L'evental taldearen "Le Ballet des Masques" lana aipatze-



koa da. Emanaldi hau larunbatean, hilak 17, izango da, 20.00etan Egiako Gazteszenan. Maiatzaren 19an Biarritzeko Baletak "Creation" lanaren entsegu irekia egingo du 19.00etan eta maiatzaren 24an Mudances taldeak "Origami" ikuskizuna eskainiko du, 20.00etan. Bi emanaldiok ere Gazteszenan izango dira. Horrez gain, Nureyev dantzariari buruzko erakusketa ere jarriko dute Donostiako Udal Musika eta Dantza Eskolan maiatzaren 30a arte.

Les Luthiersen umorea kursaalean

Les Luthiers talde argentinarrak musika eta umorea maisuki uztartzen ditu. Frantsesez "Les Luthiers"-ek "musika tresna egileak" esan nahi du, eta ez da harrizkera taldeak izen hori hartu izana, beraien emanaldietarako 31 tresna sortu baitituzte. 60ko hamarkadan sortu zen taldea eta orduz geroztik, emanaldi ugari eman ditu. Les Luthiers igandean eta astelehenean, maiatzak 18 eta 19, ariko da Kursaal Auditorioan, 21.00etan. Emanaldi hauetarako sarrerak amaitu egin dira.



Sr. No, Barley Juice eta The Red Carpet Aitzan

Ostiralean, maiatzak 16, Sr. No, Barley Juice eta The Red Carpet talde donostiarren kontzertua izango da Aitzan kultur etxean, 21.00etan. Urtebete itxaron behar izan dugu Sr. No-ren azken lana entzuteko. Hamar kantuk osatzen dute taldearen bosgarren diskoa eta honetan ere ez dira punk-rockaren bidetik aldendu. Taldekideak emaitzarekin pozik daude, eta Sr. No-ren hamargarren urtemuga ospatzeko opari ederra izan daiteke. Aurretik, Barley Juice-k eta The Red Carpet-ek joko dute.

